



ILEROKO ALDIZKARI EDERGAÏDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—: IX Urtea || 1927'ko Agofa || 105 Zenbakia || :—:

Elizaren Aginduak

Tu es Petrus et super hanc petram aedificabo ecclesiam meam. (Matt. XVI-18).

Arkaitz zera ta arkaitz onen gañean goratuko det nere eliza.



Kristau guziak ezagutzen ditugu Elizaren Agindu edo mandamentuak. Baño kristau askotxo dira noski, Elizak aginduak jartzeko daukan eskubidea ezagutzen ez dutenak.

Elizaren ume dira; baño eztakite beren zeruko Ama onek, berai agintzeko ba-daukan eskubiderik eta ba-dirudi, gaurkoan ume askok ukatu nai diotela eskubide au.

Argatik agindu oietaz itzezin baño len, adierazi nai dizuet Elizak ba-duala eskubide ori; Aita Santu ta Gotzai (Obispo) jaunak dutela ta beste iñoren eskubideak baño aundiagoa dala.

Elizak ba-du aginduz bereak beartzeko eskubidea.

Jesus'ek zeruratzean bere Andre egin duan Elizari eman dio bere agintasun osoa. Eliza gelditu zaigu ba Aren eskubide guziekin.

Eta Jesus'ek bere ume guziei agindu digu, Elizaren esanak, bereak bezala artu ta betetzeko.

Argatik esan zien Elizaren buru uzten zituen bere Apostoluei: Nere Aitak biali ninduen eran bialtzen zaituztet Nik ere (Joan. XX, 21).

Eskubide osoa eman zait zeruan eta lufean. Zoazte bada, eta erakutsi efi guziei... zuei agindu dizueten guzia betetzen erakutsiz (Matt. XXVIII-18-20).

Zuek lufean lotzen dezuten guzia, lotua geldituko da zeruan ere; eta zuek lufean askatzen dezuten guzia, askatua izango da zeruan ere (Matt. XVIII-18).

Zuei entzuten dizutenak, neri entzuten dit; zuek gaitzesten zaituenak, ni gaitzesten nau (Luc. X-16).

Jesus'en esan guzi oietan garbi agiri da, ba, bere gogoa dala Elizaren ume guziak Ama onek aginduak egitea, erakutsiak sinestea ta esanak betetzea.

Elizaren lenengo egunetatik asi-ta, Apostoluak eskubide ontaz baliatu izan dira. Jerusalem'en egin zuten Apostoluak Elizaren lenengo Batzafea ta artan erabakitakoen befia kristauei gatzigatzean diote: Espiritu Santuari ta guri iruditu zaigu ez dizugula onako beaferzko auek besterik agindu bear... (Act. Ap. XV-28).

Efeson batzafean bilduta zeuden Gotzai edo Obispoai Paulo Apostolu santuak esaten zien: Espiritu Santuak jafi zaituzte... Jaungoikoaren Eliza zuzentzeko (Act. Ap. XX-28).

Eliza bezalako Alkartasun aundia zuzentzeko jafiak ba-dira ba, naita-naiez izan bear dute aginduak jartzeko eskubidea ta eskubide ori derabilte befiz, aipatu degun Jerusalem'go Batzafean.

Aita Santuak eta Obispo jaunak dute eskubide au.

Eskubide au beste inori baño len eta era berezian Pedro Apostolu deunari agindu zion Jesus'ek: Zuri emango dizkitzut zeruko efergetzako giltzak. Eta lur gañean askatuko dezun guzia, askatua geldituko da zeruan ere, eta lur gañean lotuko dezun guzia zeruan ere lotua geldituko da (Matt. XVI-19).

Beroni esan zion: Bazkatu nere arkumeak... bazkatu nere ardiak (Joan. XXI-15-17).

Onela Pedrok eta bere ondorekoak, au da, Aita Santuak ba-dute eskubidea Jesus'en ardi ta arkumeai, siñistun guziei ta beren artzaiei edo Obispoei ere erakusteko, ta agintzeko. Pedro berari baka-fik esan zion Jesus'ek: Eta zuk... sendortu zure senideak (Luc. XXII-32).

Obispo edo Gotzai jaunak dira Apostoluen ondoreko. Geroztik auek dituzte, aiek Jesus'engandik izan zituzten eskubideak ere.



Migel golaingeru deuna. Efoma'ko Kaputxinotan.

Elizak duan eskubide au beste ñorena baño aundiagoa da.

1.^a Elizak daukan eskubide au, zuzen-zuzen Jaungoikoagandik datorkio. Jaungoikoak eman dion eskubidez erakusten du Elizak, Jaungoikoak eman dion eskubidez agintzen du; Jaungoikoak eman dion

eskubidez barkatzen du; Jaungoikoak eman dion eskubidez beartzen du; itz batean, Jaungoikoak eman dio animen onerako duen eskubide guzia ta argatik:

2.^a Elizaren eskubidea lufeko agintariak ez dezakete ez eman eta ez kendu, ez laburtu ta ez geitu; eztago ba, iñongo efregeren menpean edo baitan.

3.^a Elizaren eskubidea aldeoro ta aldiorotakoa da; nai degu esan lur alde guzietara ta garai guzietara zabaltzen dana dala. Animen onerako berez edo nolapait dan guzia ere arapatzen du ta azkenean kristau guzien gañean dauka, naiz auek izan aberats edo efregeak. Lufeko gauza uts-utsetan ezpa-daude ere Elizaren menpean, Elizak agintzen dituenetan aiek ere onen menpean daude.

Gauza gogoña da Elizaren esanak austea.

Jesus berak esan zien juduei: Elizari ezpa dio entzuten, siñesga betzat eta bizitza gaiztokotzat iduki zazu (Matt. XVIII-17).

Paulo Apostolu santuak esaten zien beriz Tesalonikarai: Agintzen dizuguna ezpa-lu egingo norbaitek, ez dezaiozuela agurik ere egin (II Tesal. III-14).

Bi itzetan.

Jesus'ek bere Apostoluei esandakoen ondoren iñork eztezake eztabaian jañi Elizak ba-duela aginduz bere umeak beartzeko eskubidea.

Eskubide au Aita Santu eta Gotzai edo Obispo jaunen eskuetan dago.

Eskubide au Jaungoikozkoa da ta Elizaren ume guziak animen onerako diran guzietan beartzen gaituena.

Eta eztiteke iñor eskubide onen kaltetan jeiki; bestela diosalarik ere egin bear etzaion bizitza gaiztoko edo sinesgabearen antzean begitu bear da.

Intza'r Damaso An.

/// **Ilabete onen amairuan meza bat emango da ZERUKO**

..... **ARGIAREN irakurle ta ongilen alde, Antonio Santuaren**

..... :—: :—: aldarean. :—: :—:

///



Sei Aita Kaputxino Txinara

—«Lan aundia ta langile gutxi.
Atorzte nere mastira.
Uzta aundia bilduko degu.
Langile onak badira».

—«Zeñen gozoa, zeñen samua,
Gure Jaunaren abotsa!
Ceran guztia zureak gera.
Jauna, bertatik, bagoaz».

Erantzupen au egin diote
Dozaren pozez. leiati.
Sei Kaputxino azkar oriek
Jaungoikoaren deiari.

Etxe aldeko atsegin oro
Utzirik, doaz Txinara.
Sinismengabe gizagaixoak
Zeru bidean jartzera.

Agur, euskaldun jator bikaiñak,
Asistafaren semeak:
Atsegin aundiz zuen aipamen
Dagike Euskaleñiak.

Lagun ditzogun, euskaldun onak,
Gure Mixiolariak.
Dezaketenak limosnaz eta
Guzti-guztiok otoitzaz.

Sabiaga



“Agur Mariaren” aldeez



ERILTO Jauna, Frantzian oso eza-guna izandu zan aspaldiko egun aye-tan. Oso ta ezin gaiztogoia lenbizi, gero bere penitentzi afigafi eta bi-zitza sailduaz mundu guzia ikaratu zuan. Bere zuzentze au, Zeruko Amak egin zuan.

Txikitatik asi zan biuritzen, gura-soen esanei batere begiratzen etzie-la. Etzuan deus nai gizonekin; Jaun-goikoarekin, gutxigo. Jaunaren zigo-fadak geyago gaiztatzen zuten. En-tzun berari: «Bein, nere etxera zaldi gañean eldu nitzela, eraso izugafia

asi zan: tximistak, bat bestearen atzetik; ostotsak, ikaragafiak. Nere zaldi-ari ezin eutsi nion, ni zaldun ona izanafen. Etxera sartu orduko, zugaitz bat erori zan nere atzean, tximista zela bide. Jaunari birau izugafi batzuk bota ondoan. sartzen naiz gelara, artzen dut iskihoa (pusila), leyoa idiki, ta ipun! zerurontz tiro bat bota nuan. Gero, afo afo, Jaungoikoa garaitu banu bezala, etzaten naiz. Lo zofo batek artu ninduan, baño, bertan ostots izu-gafiak iratzartzen nau, eta ikusten dut oatzearen anka bat sutan dagola.»

Iduri du biotza bigunduko zitzayola Jaunaren dei ugari oken bidez. Ez ofengatik. Baño, beste batez ametsetan Jaunak eraman zuan sulezera (infernura). Lau ordu gutxinez eduki zuan amets onek dena nasia. An eku-sirik bere tokia ere eta beste gañerako ezin esan al gauza, iratzartzen da izuturik, asten da bere bulafari kolpeka, eta ilebete batzuen buruan peni-tentzia egin ondotik, kartuxoen arian praile joan zan.

Baño iya zapaldurik zeudela ematen zuten grifa ayek, lotan bakafik zeuden. Aguro bada esnatzen dira, eta gau batez, baratzatik barna iges-egin eta len baño bizikera okeragoari jo zion. Etzakian zer egin Eliza, Aita Santu, Gotzai eta Apezen kalte. Beartsuak zerbait eskatzen ziotenean, bere-ala zikintzen zuan mingaña Jaunaren aurka; eta gero ematen zien zerbait pobreaki, baño Jaunaren izen santua etzutela agoan artuko agindu ta gero.

Baño jnola diran gauzak! gizon impernuko onek egunero «Agur Mari» bat esateko oitura zuan; eta Mariak atera zun nunbait leze artatik gazte negargafi ura; bere gurasoak ere alabaña, aspaldian otoitz eta otoitz ari zitzaizkion zeruko Amari Bere eliza batean.

1636 urtean Ludin efián, zer ote zan ta, elizan sartu zan (bein bederik). Gaizkindu edo deabrutu bati, deabrua barnetik ateratzeko Elizak dituan otoitzak esaten ari zitzaion apezka. Deabrua ixiltzen da. Galdegiten dio Apezak: ¿Zergatik eztuzu itzegiten?— «Eztakit ez ote dan oñako gazte ofen konbertsioa urbil dagolako» erantzuten du deabruak. Kerioltok orduan, beste bere barneko gauza batzuen artean, galdetzen dio bai aldakien zergatik etzan il bere oatzera tximista ura erori zanean eta zergatik atera zan Kartuxoen komentutik. «Etziñan il, esaten du deabruak, Maria Santuak eta zure Aingeru Zaintzaleak gorde zindutelako» Gero befiz pixko bat bere barnean sartu ta bezala, dio: «Zuk baziñuzen oben edo bekatu nazkagafi batzuek (eta esaten dizkio zeintzuk), eta Jaungoikoak ezin zuan eraman, alako gizon usteldua etxe santu artan bizitzea; ara zergatik atera ziñan etxe artatik.»

«Orduan, dio, bildurtu nintzan, nasi nintzan, eta nere barnean eztakit zer gertatu zan. Nai nuan itzuli, ta ez nintzan gauza, lotsatzen nintzan.»

Ezbai ontan, graziak garaipena eraman zuan noizpait.

Ematen dio negafari; agertzen dizkio argi ta garbi bere animako zauriak aitorleari, konpesoreari, eta badugu gizon beñia. Ogei ta amalau urte zituán orduan. Geroztik, ezditeke esan nolako penitentzi ikaragafiak egin zituán, zer limosnak, zenbat gauza, lagun urkoari bide zuzena erakusteko, lenago bide txafera eragin zion bezala. Bakafik, diote, ipiñi diteke afen penitentzien afean, bere Zeruko Amarenganako mañesuna, esker ona eta uste edo konpianza azken gabekoa.

A. I. M. A.






LAUDES DIVINAE




(Manuale Divini Officii Solesmes-1916).

Donostiar J. And. Abak ereskidetua.


Be-nedictus Deus, be-ne-dictum nomen sanctum ejus - - - ;




Be - ne - di - ctus le - sus Christus, ve - rus Dé - us et ve - rus homo.



Be - nedictum nomen le - su; bene - dictum Cor ejus Sacra - tis - si - mum.




Be - ne - di - ctus le - sus in sanc - tis - si - mo al - ta - ris Sa - cra - men - to




Be-ne-dic-ta magna Mater De-i Ma-ri-a sanc-tis-si-ma.




Be-ne-dic-tum no-men Ma-ri-ae Vir-gi-nis et Ma-tris Be-ne-di-cta sit



sanc-ta e-jus et in-ma-cu-la-ta Concep-ti-o - - - -



Be-ne-di-ctus De-us in An-ge-lis-su-is et in San-ctis su-is



Fi - - - at, Fi - - - at



¡Goretsi Jainkoa!
¡Goretsi bere izen santua!
¡Goretsia Jesu Kristo, e-
giz Jainko t'egiz gizona!
¡Goretsi Jesu-izena!

¡Goretsi bere Biotz guziz santua!
¡Goretsia Jesus, Aldareko Sakramentu Santuan!
¡Goretsi Maria, Birjin eta Amaren izena!
¡Goretsia biz bere Sortze garbi ta orban gabea!
¡Goretsi Jainkoa bere aingeru ta santuetan!
¡Alaxe, Alaxe!



Sinismena bear

Ilargi ta izafak ortzean dagozi
baña guk iñolaz gaur ezin ikusi;
odei mardul, trinkoz
estalita dagoz
eta goibel dago, zatar eta itsusi...

Ilargi betea dago iragarita
baña ez da ageri .. dana estali da
ta izanik ain edef
ez dakusgu ezer
¿Baña nork ukatu an daukala argia..?

Gizon jakintsuak esan bai digute
ilargi edefa gaur dagola bete
ta gaua ain iluntsu
ikusiafen guk
jakintsu esana guziak sinisten...

Ez da ageri ezer... ilunpe aundia...
ben-benetan gau beltz ikaragaria...
baña alaz guziaz
dasagu guziak:»
«Ortze goi-goian gaur ilargi betia...»


Ikusmen laburak lausotuak dagoz
ta odei lodiak ezin, ez, igaro
ala ere ondo
sinistua dago
ilargia an dala gertu argi naroz...

Oña oteunaren berdintza non degun
orlaxe, siniskor, aitortu dezagun
egindako obenaz
gure ikusmena
naiz odeitsu egon ben-benetan ilun...

Gure begi auek ez dira gai izango
oteundegi artan Jauna ikusteko
baña ainbat jakintsu
jafita dauzkagu
ziñez iragartzen ziñez sinisteko...

Naiz goibela egon, aroa eltzean
ilargi beteaz sinisten dan eran
ez ikusiafen
beti sinisten dei
ogi irudiz Jauna dala oteunean...

Zubigar



Gure Mixiolariak


Gero ta geyago dijoaz, mundu guztiko baztafetara gure Mixiolariak. Oraindño Ameriketara, Filipinetara, Marianetara zijoazten gureak, baño gure lana zabaldu egin da.

Ofengatik ere orain gure mixiolariak Kansu'ra, Txina'ra dijoaz, an ere fede santua zabaltzera.

Baño toki guzietan dago lana ugari. Ara Filipinetatik artu ditugun befiak.

Orain 10 urte Intza'tar Joakin Aba ara joan zan, gaixo aiei fedea eramatera ta Zeruko bidea erakustera.

Bere efiā, bere guraso, ta adiskide guztiak utzi-ta. Gogofa baita, dio berak ere, gurasoak utzitzea. «Nere biyotza mindua dago (dio berak), jakiteaz nere ama gaixoa, miñez dagoala.»




Santol'go Gaxotegia

Emen, nere efitik ain ufuti egon-da, ori izango litzake neretzat, miñ aundiena, nere ama gaixoa nik ikusi gabe iltzea.» Ta alaxe Mixiolari bioztun afeke gogotik lan egiten du bere artalde artan.

«Ezin degu atseden artu emengo lanetan, Protestanteak ere gogor egiten digutelako ta guk baño diru geiago daukatelako.»

Santol'eko Gaixotegian astero amar edo amabost gaixori ematen omen dizkie azkeneko Sakramentuak.

Oraindano bi japonese, bost txinar, iru mahometar, protestante asko ta baita masoyak ere zeruratu omen ditu gaixotegi artan azkeneko orduan, bere itzez ta bere lanaz Jaungoiko egiatzkoaren legea erakutsi-ta.



Goien gaxoak, erdia zaintzaleak eta bean Sendalariak Intza Aitarekin.

Otoitz egiteko eskatzen digu mixiolari afeke, berak gaixo ayekin egiten duan lana ugariyagoa izan dedin.

«Etofi zaitez astero, ta ilaren lenengo ostiraletan, esaten zioten bein batean Santol'go gaixoak, zuk asko poztutzen dituzu gure biotzak, ta mundu ontan ori da guretzat poz aundiena, gure animak garbitzea ta pres-tatzea Jaungoikoarengana joan bear degunerako.»

Ta beren biotz aundia nolabait agertzeko beren Mixiolariak, gaixotegiko Zuzendari Jaunari baimena eskatuta beren artean limosna bildu ta eskutitz xamur batean guzien izenak jafita eman ziyoten Intza'r Joakin Mixiolari A. Baita emendik ere lagundu ditzazkegu Filipinetako Misiolariak, otoitzez ta baita ere limosnaz.

Asko poztutzen dira Mixiolariak ikusten dutenean beren efitafak asko oroitzen dirala beretzaz ta noizean bein, beren lanetan laguntzen dietela.

Donostia'r Gabriel Aba.



IRUÑA'N —Goien.—Segorbe'ko Gotzaia, Kaputxinoata Irugafendar Kaputxinoen Sortzale G. Ag., Aita oien Nagusia eta Olazixiri'ko Nagusi Aitak ezkefau ditula, Iruña'ko AA.Kaputxinoekin.—**Erdian**.—Le-karotz'en.—Lenengo: k Kaputxinoen Aita Nagusia,ekin eta. **Bea**n.—Gure Aita Nagusia G. Ag. Pro-biltzial berri ta lengoa eskuin-ekzer dituela, beste Aita Aukeratzale GG. AA. guziekin.

MISIOLARI BEÑIAK TXINA'RA

Oña beste lau Aita Txina'ko Misiora beren gogoz eta eskez dijoazkigunak.
Iru Napafak dira ta bat Bizkaitafa.

Erdian daudenetan eskuñekoa Villava'tar Tarsizio Aita Ag. . Altsatsu'ko gure
Aztetxe Serafindarean Irakasle zegoana.

Ezkefean dago beñiz Bargota'r Fuljenzio Aita Ag. Iruñako gure teologoen
Irakasle zegoena.

Onen ezkefean dago Yufé'tar Julian Aita Ag. Au ezagutzen dezute euskal-
dunak bai Napafoan, bai Gipuzkoan, baita Bizkaí'an ere. Naiz gaztea izan. naiz



Mugika ta Ufestarazu'ar Mateo Jauna, Iruña'ko Gotzai G. Ag. gure Aita Probintzial
Ziaufiz'tar Ildefonso G. Ag'rekin eta lau Misiolariekin.

gipuzkoeraz eta naiz bizkaieraz ederki itzaldiak euskalefi guzia bafena egiten ze-
bilkiguna, orain Txina'ra dijoakigu bere gogo bizi-biziz. Zeruko Argiaren lantegiak
langile bikaña galtzen du beragan.


Eskuin aldean dago beñiz Guli'ar Rafael Aita Ag. oraintxe ikastaroak dukatu
dituena.

Lau mixiolari beñi auk Dagonila edo Agutzuaen 15'ean artu zuten gure
Gotsai G. Ag. ta biotzekoaren eskutik Misiolari gurutzea beronen itzaldi bi-
kañaren ondoren eta emengo guzien besarka ta agur bero-beroa ta ilabete bera-
ren 23'ean itxasoan sartu ziran Genova'n.

Shang-hai'en bilduko zaizkiote beste bi Aita Probintzi ontakoak eta lauokin
Txina'n, zortzi misiolari izango ditugu gure Aita Doistar edo Alemanen ondoan.

Andre Mariak zuzendu ditzazkigula beren ibilbide guzietan eta anima asko
Jaungoikoaganatzeko bidea diela.

Jdazleak.



Eukaristi-Batzafak

Lyon'en egin dute aurtan beren VI'gafen Eukaristi Batzafa Prantzi'ko kato-likoak. Azkenengo egunean eguraldi onak lagundu zien ta ofegatik bildu ziran 100 milatik gora, iru kilometroko bidean egin zan prozesiora. Onek iru ordu iraun zuan.

—Portugal'eko katolikoak egin dute beren bigafen Eukaristi-Batzafa. Bai zoragafia ofenbeste aur, emakume ta gizon Jauna artzen ikustea. Lenengo egu- nean aufak, bigafenean emakumeak, irugafenean gizonak ta azkenengoan gu- ziaz batean bildu ziran zeruko Ogia jatara. Azken eguneko prozesioan 150 mila gutxienez. Prozezioak sei ordu iraun zuan.

—Urte bat bete da Txikago'n egin zan Eukaristi-Batzafa ezkeru. Ango kato-likoak alako jai edefak gogora ekafi dituzte ta joan dan urtean egin zan toki bertan egin dute aurtan ere prozesioa Jaunarekin ta iya 100 mila katoliko bildu dira.

Igandea ta dantza

Suiza'ko probintzi batean, antziñatik datorkien, oitura edefa dute. Jai egu- netan ta larunbata-afatsaldetan, guzien afean egiten diran dantzak debeka- tuak daude. Sozialistak ta beren adiskideak oitura ontaz lotsatu egin dira nos- ki ta eskatu dute probintzi oritako efi guziaz beren iritzia galdetzeko, esan de- zatela ea oitura ortan jafaitu, ala aldatu nai duten. Botuak bildu dira ta geye- nak oitura zar ori gordetzea nai dutela esan dute: 25.317 oitura ofen alde ipiñi dira, 2132 bere afean.

Erabaki edefak

Beljika'ko andre katolikoak beren batzafa izan dute. Ara erabaki batzuek:

1) Oraindaño ez ditugu bear bezela bete Aita Santuaren ta gotzai edo obispoen esanak gure jazkeran. Ofegatik nai genduke gaurtik aufera gure gaz- teak beren soñekoetan beso luzeak eramatea, bulafa ta sorbalda estaltzea ta belauetik bera soñekoa erortzea, eserita egonda ere.

2) Oraingo dantza befiak ez dituzte dantzatuko ez beren etxean, ez bes- teen afean. Beren bilera ta jaiak onak ta garbiak izan bear dute ta jai oyetatik etxeratu bear dira ufengo goizean Jauna artzeko era edo moduan.

Itxuronaren alde. Ikasgaria

Itxuronaren (jantziara onaren alde) Genova'ko Eliz-bafutian lan egiten duen alkartasunak eztu lan txafa artu uda ontan. Kaietako, itxas baztafetako udan jendea urak eta bustiak artzera joaten diran efietako Agintariengana jo dute,

oietako itxuskeri guziak eragotzi naiez. Orlarako bustiak arizen diran itsas baztafetan Agintariei zofoztasun aundia eskatzen diote. Erne egon ditezela itxura gaiztoko soñekorik ez uzteko, gizonezko ta emakumezkoen artean baita aur eta azitakoen artean ere berexlasuna jartzeko, baita leku bereziak ere eguzkiral-diak (eguzki-bañuak) artzeko. Gañera eskatzen dute ez uzteko alolako jendeai leku aietara joaten eta abar.

Misiolari bat gutxiago

Uztailaren lenengo egunetan Jaunari kontua eman dio gure Guam'go Misiolari batek. Zuñiga'r Anselmo Aita, Napafa zan. Oraindik 55 urte bakarik zitu-en. Amaika urteko mutiltxoa zela sartu zan gure Altsatsu'ko Aztetxean. 1909'an jantzi zuen Kaputxinoen soñekoa, 1919'an Meza eman zuan eta berealaxe bial-du zuten gure Aita Nagusiak Guam'go misiotara.

Bere ikastaro guztietan ikusi genduen Ama-birjiñaren maitetasun bereziaz betea. Bera zan lagun guzien artean arduratsuenetakoa, koruan degun Ama-Birjiñaren irudia lore befiz apaintzeko.

Mixiotarako bere gogo bizia ezaguturik, auei kristau ikasbidea erakusten eta, beñere aspertzen etzana zalako, Guam'go Gotzai berak aukeratu-ta joana zan.

Txamofoen izkuntza laxter ikasi zuan Bera'tar Efoman Aitarekin eta Inara-jan izena duan efian egon da gerozko ontan lan eta lan.

Orain azkenean sukar (berotasun) ustelak sartu ta luzaro egon da gaxo ta pozik baño pozikago eskeñi omen dio Jaunari bere bizia bere Txamofa maiteen animen onez.

Urte gutxitan beregandu du, urte askotakoen saria.

IL-BERIAK

Gure arpidedun zintzo auek guziak urte onen asiera eskeroz Jaunaren besoetan loak artu ditu uste degunez. Bañan oraindik beafean ba-lego oieta-koren bat beren alde otoitzak eskatzen dizkitzuegu, artzaleoi. Beren etxeta-koai befiz gure naigabea erakusten diegu geren otoitzaz gañera.

Etxandia'ko Marques Jauna, **Madrid'en**. Etxafi'ar Eustasia, **Astigara-gan**. Artzai Onaren Eliza'ko Pedro Apaiz Jauna, **Donostian**. Gomendio'ar Luisa, **Otxandiano'n**. Luzuriaga'r Antonio, Zeruko Argiaren Ordez-kari zana, **Villabona'n**. Azkue'tar Maria, **Pasai S. Pedro'koan**.